



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO OTSAILAREN 5EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.02.05.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.
Zinegotziak:
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Arantzako Udal Plan Orokorra: herritarren parte-hartzearen prozesuaren onespena.
- 3.-5. poligonoko 971., 972. eta 973. lur zatien plan berezia: hasierako onespena.
- 4.-M.Luisa Almandoz Mitxelena: oihan probetxamendua egiteko epearen aldaketa eskaera.
- 5.-Nafarroa Oinez 2018: diru laguntza eskaera.
- 6.-Herri Urrats 2018: diru laguntza eskaera.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2018ko urtarrilaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: bilera bukatu zen eguerdiko 13:30ean eta ez arratsaldeko 18:30etan.
2018ko urtarrilaren 8an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.- ARANTZAKO UDAL PLAN OROKORRA: HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN PROZESOAREN ONESPENA.

Arantzako Alkatearen 143/2017 ebazpenaren bidez ebatzi zuen ARRATA ELKARTEA enpresari Arantzako Hirigintzako Udal Plana egiteko lanak esleitzea.

Ondoren, Arrata Elkarteak Udal Planaren egutegia eta herritarren parte-hartze plana aurkeztu du.

Ikusirik aipatutako dokumentazioa, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Hirigintzako Udal Planaren herritarren parte-hartze plana onartzea.
- 2) Akordio hau Arrata Elkarteari jakinaraztea.

3.- 5. POLIGONOKO 971., 972. ETA 973. LUR ZATIEN PLAN BEREZIA: HASIERAKO ONESPENA.

Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunak Arantzako 5. poligonoko 971., 972. eta 973. lur zatietan eraikigarritasuna eta eraiki daitezkeen bizitza kopurua handitu nahi ditu. Horretarako Plan Berezia aurkeztu du.

Ikusirik aipatutako Plan Berezia.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen txostena.

Kontuan hartuz herritarren parte-hartze prozesua egina dela eta horren akta aurkeztu dela 2018ko urtarrilaren 31n.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1. artikulua jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunak aurkeztutako Hiri-jarduketarako Plan berezia hasiera batez onestea (Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 971., 972. eta 973. lur zatietan).

2) Akordioa jendaurrean edukitzea hilabeteko epean. Epe horretan interesdunek hirigintza espedientea kontsultatu ahalko dute eta, kasu bada, bidezko iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu. Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, Hiri-jarduketarako Plan Berezia behin betiko onetsizat hartuko da eta horren berri emanen zaio Udalaren osoko bilkurari.

4.-M. LUISA ALMANDOZ MITXELENA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDUA EGITEKO EPEAREN ALDAKETA ESKAERA.

M^a Luisa Almandoz Michelena andreak aurkeztu zuen Antronpa alderdian dauden zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera (6. poligonoko 53. lur zatia).

Kontuan hartuz lur zatia herriko lurra dela, Udalak 6 urteko epea ematea erabaki zuen aprobetxamendua egiteko eta lur zatia garbia uzteko.

Ikusirik M. Luisa Almandoz Michelena andreak 10 urteko epea eskatu duela aprobetxamendua egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M^a Luisa Almandoz Michelena andreari eskatutako oihan probetxamendua egiteko 10 urteko epea ematea aprobetxamendua egiteko eta lur zatia garbia uzteko (2027. urteko abendua arte).

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

5.-NAFARROA OINEZ 2018: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroa Oinez-ek aurkeztutako idatzia, 2018. urtean euskararen aldeko besta antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2018ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

6.-HERRI URRATS 2018: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Herri Urratsek aurkeztutako idatzia, 2018. urtean 35. edizioa antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2018ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 9. ebazpenetik 16. ebazpena arte.

8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

9.-M. JULIA ALMANDOZ ECHEVERRIA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Ikusirik M. Julia Almandoz Echeverria andreak aurkeztutako eskaera, Bordalarrea alderdian dauden haritz amerikanoen probetxamendua egiteko (entresaka, 5. poligonoko 130. eta 174. lur zatietan).

Ikusirik M. Julia Almandoz Echeverria andreak aurkeztutako eskaera, Bordalarrea alderdian dauden alertzeen probetxamendua egiteko (entresaka, 5. poligonoko 67., 68. eta 740.lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Julia Almandoz Echeverria andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerei aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintzapean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Ander Almandoz Indakoetxea jaunak ateri da bilera aretotik, interesdun delakoz.

10.-ARANTZAKO 2018KO INAUTERIAK.

Arantzako Udaleko Alkatearen 9/2018 ebazpenaren bidez, Arantzako mozorroei aurtengo inauteriak antolatzeke baimenak eta diru laguntza eman zien.

Halaber, Alkateak ebatzi zuen Arantzako mozorroei 1.050,00 euroko diru laguntza ematea inauteriak antolatzeke, jakinaraziz ordainduko dela kopuru horren inauterietako gastuen agiria aurkeztu eta justifikatu ondoren, eta herriko ondasun eta pertsoneri errespetoa eskatzea, deus hondatu eta hautsi gabe.

Ikusirik ostegun goizean zabor ontzia hondatu zutela gosalduta eta segidan.

Ikusirik frontoi barruan altxaferoak bota zituztela haurrak bertan zeudenean.

Eskatutakoa errespetatu ez denez, proposatu da, zigor moduan, diru laguntza tikitzea (erdia ematea).

Mentxu Peña Lizarazu andrea, Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna, Jose Javier Mitxelena Ordoki jaunak eta Juan M. Gonzalez Burguete jaunaren aldeko botoa eman dute.

Iñigo Sarrias Zoco jauna eta Igor Ugalde Salazar jaunak kontrako botoa eman dute eta diru laguntza ez tikitzearen alde agertu dira.

Ikusirik bozketaren emaitza (lau alde eta bi aurka), ERABAKI DUTE:

1) Arantzako mozorroei 525,00 euroko diru laguntza ematea inauteriak antolatzeke, jakinaraziz ordainduko dela kopuru horren inauterietako gastuen agiria aurkeztu eta justifikatu ondoren.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna bilera aretora itzuli da.

11.-M. JOSE ALZURI ALMANDOZ ANDREAK ETA JOSE ANTONIO YUBERO ESTEFANO JAUNAK JARRITAKO ALTXADAKO ERREKURTSOARI BURUZ.

2008ko ekainaren 21ean M. Jose Alzuri Almandoz andreak eta Jose Antonio Yubero Estefano jaunak aurkeztutako idatzian ondorengo adierazi zuten:

“Beharrezko denez, gure etxeko ur zikinari irtenbide bat emateko ordua iritsi zaigu.

Ur hauek bideratzeko bi askabide direla argi dago:

1.-Ur zikinak biltzeko gune bat “FOSA SEPTICA” dena eraikitzea.

2.-“HODI” bat urratuz, kolektorera ur hauek bideratzea.

Bi irtenbide hauetatik garbiena eta, era berean, guztiontzat egokiena, HODIA urratzea iruditzen zaigu. Hau lortu ahal izateko, beharrezko ikusten dugu inguruko bizilagunen eta Udaletxearen laguntza, hots, finantziaketa alorrean partehartzea. Bigarren irtenbide honeri ezezkoa emanez gero, lehenengo puntua, “FOSA SEPTICA” eraikitzeke beharrean aurkituko gera. Erraniko hau lehenbailehen aztertuko eta ontzat hartuko duzelakoan (ingurunearen onuragatik) alde aintzinetik, begirunez.”

Ondoren, bertze bizilagunek ere antzeko eskaera aurkeztu zuten.

Udalak, 2008ko urriaren 1ean egindako bileran, erabaki zuen Agina Iturgintzak aurkeztutako aurrekontua onartzea (7.189,00 euro, BEZ kanpo) eta Udalak gastoaren 1/3 zatian parte hartzea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Obra burutu zen eta 2017ko otsailaren 2an igorri zen M. Jose Alzuri Almandoz andrea eta Jose Antonio Yubero Estefano jaunari eta egindako lanak onura ematen zien lurren jabe guztiei gastuen banaketa. Denek ordaindu zuten bakoitzaren zatia.

M. Jose Alzuri Almandoz andrea eta Jose Antonio Yubero Estefano jaunari 3.329,24 euro 2017ko otsailaren 29an ordaindu zuten Arantzako Udalari.

Ondoren, 2017ko martxoaren 2an, M. Jose Alzuri Almandoz andreak eta Jose Antonio Yubero Estefano jaunak altxadako errekurtoa jarri zuten Nafarroako Administrazio Auzitegian ordaintzeko eskatutako kopuruaren aurka, preskribatua delako, eta ordaindutako kopurua itzultzeko eskatuz.

Nafarroako Administrazio Auzitegiak ebatzi zuen errekurtoa 2017ko irailaren 20an (2291. ebazpena). Bertan onartu dute, zati batean, jarritako errekurtoa eta bertan behera uzten dute jarritako likidazioa (3.329,24 euro) aipatuz kopuru hori itzuli beharko duela Arantzako Udalak.

Horren aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M. Jose Alzuri Almandoz andrea eta Jose Antonio Yubero Estefano jaunari 3.329,24 euro itzultzea.

2) Akordio hau M. Jose Alzuri Almandoz andrea eta Jose Antonio Yubero Estefano jaunari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.



